| 2014KO ABENDUAREN 17AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA | ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 17 DE DICIIEMBRE DE 2014 |
|---|---|

Alvaro GONZALEZ PEREZ Jn.

| BERTARATUTAKO BOKALAK | VOCALES ASISTENTES |
|---|---|

ANDRADE AURRECOECHEA, Eduardo jn.
ARREGI MARTINEZ, Joseba jn.
BASILIO CARNICER, Ana and.
ELORZA HORMAECHEA, Francisco Javier jn.
LOROÑO GOIENETXE, Josu jn.
NEREKAN UMARAN, Maitane and.
RUIZ EGAÑA, Fco. Javier jn.
RUIZ ESTIVARIZ, Agustín jn.
SAITUA IRURETAGOIENA, Bingen jn.
URIARTE GOROSTIAGA, Ignacio jn.

| IDAZKARIA | SECRETARIO |
|---|---|

Juan Ig. ASTORKITZA MOTA jn.

Getxon, bi mila eta hamalau abenduaren 17ko goizeko 08:45ean, Santa Klarako Bilkura Gelan egindako ohiko bilkuran, Zuzendaritza Batzordea bildu zen eta goian zerrendatu diren pertsonak bertaratu ziren.

105.-**AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

2014ko azaroaren 17an egindako aurreko bilkuraren akta AHO BATEZ onartu dute bertan daudenek.

106.-3**01/2014 ZK. LEHENDAKARITZA-EBAZPENAREN KONTU EMATEA; HORREN BIDEZ, 10.000,00 EUROKO KREDITUA EGOKITZEA ONARTU DA**

Lehendakariak kreditua egokitu dela jakinarazi du. Azaldu duenez, Osasunlab proiektua gauzatzeko transferentzia da.

Proiektu hori Fadurako garagardotegi zaharraren eraikinean egingo da. Ongizatearen eta kirolaren eremuan ekintzailetza campus bat da. Haren helburua bizitza osasuntsuari lotutako prestakuntza eskaintzea da, lanbide eta sormen gaitasunak ikasiz. Kirolaren, ongizate fisiko eta emozionalaren eta ingurunearen gaineko gaiei buruzko ardura daukaten pertsonentzat irekita dago, baita alor hauetan lanbide-ekintzailetzako proiektu bat garatu nahi duten pertsonentzat ere.

**INFORMAZIO OROKORRA**

1.- "KIROLAREN EUROPAR HIRI" ONENARI SARIA

Lehendakariak jakinarazi du alderdi guztiei

En Getxo, a las 8:45 horas del día 17 de Diciembre de dos mil catorce, se reúne en sesión ordinaria en la Sala de Reuniones de Santa Clara, el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

105.-**APROBACION SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA REUNION ANTERIOR**

Se aprueba por UNANIMIDAD de los presentes el acta de la reunión anterior, de fecha 17 de noviembre de 2014.

106.-**DACION DE CUENTA DE LA RESOLUCION DE PRESIDENCIA Nº 301/2014, POR LA QUE SE APRUEBA UNA HABILITACION DE CREDITO, POR IMPORTE DE 10.000,00 EUROS**

El Presidente da cuenta de la presente habilitación e informa que se trata de una transferencia para ejecutar el proyecto Osasunlab.
Dicho proyecto, se realizará en el edificio de la antigua cervecera de Fadura y, consiste en un campus de emprendimiento en el ámbito del bienestar y el deporte, cuyo objetivo es ofrecer formación vinculada a la vida saludable a través del aprendizaje de competencias profesionales y creativas; está abierto a personas con inquietudes en todo lo relacionado con el deporte, bienestar físico, emocional y el entorno, y aquellas personas que quieran desarrollar un proyecto de emprendizaje profesional en estas áreas.

**INFORMACIÓN GENERAL**

1.- PREMIO MEJOR "CIUDAD EUROPEA DEL DEPORTE"

El Presidente informa que ya se ha enviado la

dokumentazioa bidali zaiela, aurreko batzarreko aktan ageri denez. Antolatzaileen irizpideak betez, sarira aurkeztu diren gainerako hirien izenak ez dituzte eman. Informazio hori webgunean azalduko da.

documentación a todos los partidos, tal como figura en el acta de la sesión anterior, y, siguiendo criterios de la organización, se han omitido los nombres del resto de ciudades que optaban al premio. Esta información figurará en la página web.

## GALDE-ESKEAK

### Piraguismoa

Andrade jaunak galdetu du egoera txarrean dauden piraguak norenak diren.

Lehendakari jaunak erantzun du Portuko Agintaritzarenak direla, eta komenigarria litzatekeela leku egokiagoren batean gordetzea, are gehiago narriatu ez daitezen.

Andrade jaunak galdetu du arraunketa pabilioian ez ote dagoen lekurik.

Lehendakari jaunak ezetz erantzun du. Jakinarazi dio aspaldi arraunketa pabilioira ez zutela joan nahi izan eta konponbide bat bilatzen ari direla. Halere ez da erraza, beste pabilioi bat eraikitzeko aukera aztertzen ari delako eta horrek HAPOa aldaraziko lukeelako. Hala eta guztiz ere beste aukera batzuk aztertzen ari dira.

Jorratzeko beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat ematen da akta honetako goiburuan adierazitako eguneko 08:50ak direnean.

Lehendakaria / El Presidente

## RUEGOS Y PREGUNTAS

### Piraguismo

El Sr. Andrade pregunta por la titularidad de las piraguas que se encuentran en mal estado.

El Sr. Presidente contesta que pertenecen a la Autoridad Portuaria, y que sería conveniente que las guardasen en algún lugar más acorde para evitar su deterioro.

El Sr. Andrade pregunta si no hay sitio en el pabellón de remo.

El Sr. Presidente contesta que no e informa que, en su momento, se negaron a ir al pabellón de remo y que se está buscando una solución, pero que no es fácil, ya que se ha barajado la posibilidad de construir un nuevo pabellón y ello conlleva la modificación del PGOU; no obstante se están estudiando otras alternativas.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 08:50 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.

Idazkaria / El Secretario